

HONDARTZA BOLEIBOLERAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK

1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena

HONDARTZA BOLEIBOLA

2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak

Modalitate horren kasuan, adierazi beharra dago, batetik, maiatzean hasten den jarduera bat dela eta, bestetik, kanpoko ekintza bat dela.

Antolatutako zirkuituaren proba bakoitzean, orain arte, 400 haur inguru bildu dira. Uste dugu egokitzapen batzuk egin behar dizkiogula antolaketari, egoera hori saihesteko:

6 proba, 8 beharrez.

Zelai kopurua gutxienez erdira murriztuko da.

4 proba maila bakoitzean.

Txapelketaren iraupena 90 minutukoa izango da, kategoria bakoitzeko.

Egun berean jokatu beharreko mailen arteko denbora tartea 15 minutukoa izango da.

3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketara arauak

1. Gaixo daudenek ez dute parte hartuko.

2. Segurtasun distantzia une oro errespetatu beharko da.

3. Parte hartzaileak hondartzara iritsitakoan, parte hartuko dutela berretsi beharko dute antolatzaileen kontrol puntuan, eta tenperatura hartuko zaie.

4. Beharrezko material guztia eraman. Jokalariak ez dute materialik partekatuko.

Ura: jokalaria bakoitzak bere botila ekarriko du. Ezin da partekatu, inola ere.

6. Hidrogela eta garbitzeko material desinfektatzailea eskuragarri egongo dira antolatzaileen gunean.

7. Jokatzeko baloia partida bakoitza amaitutakoan garbituko da, substantzia desinfektatzaile batez.

4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketa arauak.

Entrenamenduetan eta partidetan partaideen kontrol orri bat egin beharko da. Orri horretan pertsona horien izen-abizenak, telefono zenbakia eta kiroldegira iristean egun bakoitzean duten tenperatura azalduko da.